

Emakumeak, arraza eta klasea



Ruben Sánchez
Bakaikoa
IRAKASLEA
@arlotea

Angela Davisek *Emakumeak, arraza eta klasea* liburuan AEBetako emakumeen aurkako azpiratzea aletzen du, beltzak eta langile-klasekoak izateagatik areagotua. Liburuak badakar Lorea Agirrek Davisi eginiko elkarrizketa, non “beltzak” eta “euskaldunak” alderatzen dituen; hango azpiraketan arrazakeriak eta Euskal Herriarenean hizkuntza-zapalkuntzak duen zentraltasunagatik. Davisek ohartarazten du, dena den, ezin dela herri bateko errealitatea zuzenki bestera pasa, tokian tokiko berezitasunak aintzat hartu behar direla.

Hizkuntzaren aldeko borroka feminismoa eta klase borrokarekin elkarlotzeak badu zentzua. Areago, baita ekologismoa, justizia soziala, base-ria, inklusioa eta borroka justu guztiekin lotzea ere. Eta zentzuaz harago, hobeto koka gaitezen laguntzen du eta dimentsio berriak ekarri.

Angela Davis Bilboko kaleetatik ibili bazen, ordea, ikusiko zuen beltzak egon badaudela, baita magrebtarrak, latinoamerikarrak eta arlote gehiago. AEBetan bezala arrazakeria pairatzen dutela, beheko klaseetakoak direla, eta emakumeak badira hori dena areagotzen dela. Horrek ez du ukatzen euskaraz bizi nahi duen euskalduna azpiratuta ez dagoenik; barrikada-kideak identifikatzen laguntzen du.

Duela 40 urte euskara Euskal Herri osoan guztiz azpiratua zegoen, gaur egun, eskolatik hasi eta ETB1eraino, baditu bere esparrutxoak, nongo

euskalduna zaren arabera handiagoak ala ttipiakoak. Tokian tokiko errealitateak aintzat hartu behar dira, horregatik ez dira onargarriak Patxi Mendiburuk Nafarroako D ereduaren gainean errandakoak: “Baztertzailea da etorkinak eta adimen urrikoak paretik kendu eta *guayak* geratzen zarete”. Espainiera, berriz, unibertsala, abegikorra eta integratzailea omen da. To eta ño!

Honek, bihotzerrea igarota, pentsarazi beharko liguke Espainiak eta Frantziak jarri diguten tranpaz: euskararen azpiratzea diru-laguntzen bidez ezkutatu eta menderatu. Euskara posible duzu, baldin eta ordaintzen baduzu. Ez soilik Nafarroan eta Iparraldean, EAEn ere bai. Zenbat dira egunero gaztelania jakin ez, eta EPAn dohainik ikasten ari diren etorkinak? Zenbat etorkinen seme-alaba bideratzen dira A ereduko eskola eta institutueta “euskara ezingo dutela ikasi” esanik?

Euskaraz bizi nahi dugun euskaldun zuriok kexu gara –arrazoiz– egunero gu azpiratzeko eraikita dagoen sistema batean bizi garelako. Baina ez dugu pairatzen klase-zapalkuntzarik euskaldunak izateagatik, eta garai bateko aldarrikapenak –publikoa eta unibertsala– gero eta ktramilatua ikusten ditut instituzioek jarritako amaraunetan.

Mila frente daude, baina espainiera eta frantsesari ezin diegu utzi hizkuntza integratzaile eta dohainekoen statusa izaten beltzen begietan. ■

Bron/Broen X



Itxaro Borda
IDAZLEA

Duela bi aste, hamar hilabete berritzen pasa ondoan, San Izpiritu zubia ireki diete autobus eta beribil saldoei. Ziuntaz pasatzen dira, gaez eta egunez, dioxido partikulak airean hedatuz eta gure biriken sakoneraino barreiatuz.

Telesaila nordikoz eta latino-amerikarrez hazi euskal idazlea naizenez, erraz imajina dezaket atmosferaren kutsaduraren biktima litekeen hilotz bat, zubiaren erdi erdian etzana, burua San Izpiritun eta zangoak Baiona Handi opulantean, Joan Tartas idazle zaharrak lerrakeen eran!

Uda honetan, ederki estreinatutako zubiak –haurren ekitaldiak, tango dantzaldia, Cranberrie-

sen *Zombie* kanta megafonietatik eta su ziriak-jasango duen hilotz bakarra Baionako Bestetan sobera mozkortu izakiren batena baizik ez bide dateke... Baina baliteke ere jende gutxiago hurbiltzea, eredu maskulinista gorenaren ildotik hordimen kolektiboa lege jartzten duten ospakizun hauetara: Baionan errotzen ez direnek zortzi euroko sarrera ordaindu beharko dute, bestaren baitan bana-beste gastatzen dituzten hirurehun euroz gainera! Baionarrek aldiz esku-muturreko horia eramanen dute, lekuko biztanleak direla frogatzeko! Bereizketa bitxia ez?

Hilotzak ez dira beti uste dugun tokian... ■